BESTELAKO XEDAPENAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

4779

EBAZPENA, 2026ko urriaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, ebazpen honen huts-zuzenketa egitekoa: Ebazpena, 2026ko urriaren 20koa, zeinaren bidez argitara eman baita Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-, prestakuntza- eta laneratze-proiektu integralak garatzeko laguntzen 2026ko eta 2027ko ekitaldietarako deialdia, laneratzera eta lan-merkatuaren beharrizanak asetzera begira, administrazio-erregularizazioko prozesuei lotutako jarduketak txertatuta.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Horrelako akatsak ikusi dira ebazpena, 2026ko urriaren 20koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara eman baita Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-, prestakuntza- eta laneratze-proiektu integralak garatzeko laguntzen 2026ko eta 2027ko ekitaldietarako deialdia, laneratzera eta lan-merkatuaren beharrizanak asetzera begira, administrazio-erregularizazioko prozesuei lotutako jarduketak txertatuta. Hori dela eta, haren edukia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluak onartutakora egokitzeko, dagokion zuzenketa egingo da.

– 2026/4546 (54/33) orrialdean, 8.5 artikuluan,

hau dio:

«5.– Hauek dira dirulaguntza-eskaerak aurkezteko epeak:

a) Proiektu integraletarako eskaerak aurkezteko epea EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da, eta 2026ko urriaren 15ean bukatu.».

Baina hau esan behar du:

«5.– Hauek dira dirulaguntza-eskaerak aurkezteko epeak:

a) Proiektu integraletarako eskaerak aurkezteko epea EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da, eta 2026ko azaroaren 20an bukatu.».

– 2026/4546 (54/45) orrialdean, 17.4 artikuluan,

hau dio:

«4.– Emandako dirulaguntza erakunde onuradunak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko da.

Erakundeak ez badu Lanbideren ordainketarik jaso edo banku-datuak aldatu nahi baditu, hirugarrenaren datuen fitxa bete beharko du. Helbide honetan egongo da eskuragarri: https://www.euskadi.eus/servicios/1113708».

Baina hau esan behar du:

«4.– Emandako dirulaguntza erakunde onuradunak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko da.

Erakundeak ez badu Lanbideren ordainketarik jaso edo banku-datuak aldatu nahi baditu, hirugarrenaren datuen fitxa bete beharko du. Helbide honetan egongo da eskuragarri: https://www.lanbide.euskadi.eus/diru_laguntza/2026/pi2026-f/weblan00-content/eu/, https://www.lanbide.euskadi.eus/diru_laguntza/2026/pi2026-al/weblan00-content/eu/ edo https://www.lanbide.euskadi.eus/diru_laguntza/2026/pi2026-c/weblan00-content/eu/».

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 29a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.